



XXV. MARTIN UGALDE IPUIN LEHIAKETA

Deialdia honako oinarri hauen arabera arautuko da:

1. Deialdi honen xedea gazte eta gaztetxoek artean idazteko zaletasuna bultzatzea da.
2. Partaideak Andoain, Aduna, Asteasu, Amasa-Villabona, Larraul, Urnieta eta Zizurkilgo gazteak izango dira
3. Ipuin lehiaketara **10etik 17 urtera bitarteko edozein neska-mutilek aurkez dezake bere ipuina.**
Lanak egile bakarra izan behar du.
Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake.
Lanek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Baldintza hau ez betetzeak, zigorra ekar lezake: saria bueltatzea eta hurrengo deialdietan lehiaketa honetara aurkeztu ezin izatea.
4. Lehiaketa **lau mailatan** banatuko da, eta mailaren urteak kalkulatzekoan jaiotze urtea hartuko da kontuan.
A.maila : 10 - 11 urtekoena (2010 eta 2011 urteetan jaiotakoak)
B.maila : 12 - 13 urtekoena (2008 eta 2009 urteetan jaiotakoak)
C.maila : 14 - 15 urtekoena (2006 eta 2007 urteetan jaiotakoak)
D.maila : 16 - 17 urtekoena (2004 eta 2005 urteetan jaiotakoak)
5. Martin Ugalde jaio zela 100 urte betetzen diren urtean bere izena daraman ipuin lehiaketak 25 urte beteko ditu. Ospakizun hauek nabarmentzeko Martin Ugaldek idatzitako ipuin batzuen sarrerak eta lehiaketaren lehen edizioko ipuin irabazleak erabiliko dira. Lehiakideek sarrera hauek hartu eta bertatik abiatuta, ipuinari modu libre eta originalen jarraipena eman beharko diote.
6. Lehiaketa maila bakoitzak sarrera aukera bat edo gehiago izango du lehiakideak erabaki dezan ipuina idazteko zein jarraituko duen. Aukera horiek oinarria hauen eranskinean zehaten dira. Esteka hauetan ere aurkitu daitezke: www.andoain.eus / www.bastero.eus; eta paperean jaso nahi dituenak Andoaingo Udaleko Atari Zerbitzuan eta Bastero Kulturguneko leihatilan jaso ditzake.
7. A. mailako lanek gutxienez 2000 eta gehienez 6000 karaktere izango dituzte eta B. C. eta D. mailako lanek, gutxienez 6000 eta gehienez 16000 karaktere izango dituzte. Kasu guztietan DIN A-4 neurrian aurkeztuko dira ordenagailuz idatzita. Lerroartekoa bikoitza izango da, justifikatua eta letraren arial tamaina 12koa.
8. Lanak paperean edo euskarri digitalean entregatu ahal izango dira. Paperean, lan bakoitzaren LAU kopia entregatu beharko dira **urriaren 8an**, beranduenez, Bastero Kulturguneko harreran. Modu digitalean, .pdf formatuan entregatu beharko dira, egun eta leku berean.
9. Lanekin batera, **gutun-azal itxi bat** aurkeztuko da. Gutun-azalaren barnealdean lanaren egilearen izen-deiturak, jaiotze data, helbidea, telefonoa eta adina jarriko dira. Baita ikasten duen ikastetxearen izena. Gutun-azalaren kanpoaldean, berriz, **lanaren izenburu berbera eta egilearen jaiotze urtea soil-soilik.**



- 10.** Era berean, lanarekin batera hirugarren oinarria betetzen dela egiaztatzen duen **zinpeko aitorpena** aurkeztuko da, hau da, ipuina argitaratu gabekoa dela eta beste lehiaketa edo sariketa batzuetan inolako saririk jaso ez duela egiaztatzen duen aitorpena. Zinpeko aitorpen hori gutun azalaren barruan sartuko da esandako datu pertsonalekin batera.
- 11.** Sariak honakoak izango dira maila bakoitzerako:
- | | | |
|----------|----------|---|
| A. maila | 1. saria | 100 euroko bonoa + liburu sorta |
| | 2. saria | 70 euroko bonoa + liburu sorta |
| B. maila | 1. saria | 110 euroko bonoa + liburu sorta |
| | 2. saria | 80 euroko bonoa + liburu sorta |
| C. maila | 1. saria | EIEaren Sari berezia (*) + liburu sorta + 150€-ko bonoa |
| | 2. saria | EIEaren Sari berezia (*) + liburu sorta + 100€-ko bonoa |
| D. maila | 1. saria | EIEaren Sari berezia (*) + liburu sorta + 200€-ko bonoa |
| | 2. saria | EIEaren Sari berezia (*) + liburu sorta + 150€-ko bonoa |
- (*) EIE - Euskal Idazleen Elkarte
- 12.** Epaimahai aditu batek erabakiko du lan sarituak zeintzuk diren. Andoaingo Udalak bere ordezkaria izango du epaimahaian, eta idazkaria ere izendatuko du.
- 13.** Sariak eman gabe utz daitezke aurkeztutako lanek Epaimahaiaren iritziz behar adinako kalitaterik ez badute.
- 14.** Lan sarituak Udalaren esku geldituko dira, eta egoki iritziz gero argitaratu egingo ditu, baina ez da horregatik jabetza eskubiderik izango.
Horretarako, saritutako lanak formatu digitalean entregatu beharko dira saria jasotzen den egunean, bai CDan, USB batean... edo bestela emailez ere bidali daitezke kultura1@andoain.eus helbidera. Dokumentuaren formatua .doc, .docx edo .odf beharko du izan.
- 15.** Parte-hartzaileek antolatzaileak salbuetsi egiten dituzte parte-hartzaileek egin lezaketen plagioagatik edo indarrean dagoen legediko beste edozein lege-urratzerengatik ondoriozta daitekeen edozein erantzukizunetatik.
- 16.** Sarituak izan ez diren lanak azaroaren 15an eta 16an jaso ahal izango dira. Jasotzen ez diren lanak puskatu eta bota egingo dira.
- 17.** Sari banaketa azaroan egingo da, aldez aurretik adieraziko den egunean eta orduan. Sarituei telefonoz jakinaraziko zaie sari banaketa noiz eta non egingo den.
- 18.** Baldintza hauetan zalantzarik balego, hautaketa egiten duen epaimahaiaren iritzia izango da nagusi, horren erabakia apelaezina izango delarik.
- 19.** Lehiaketa honetan parte hartzeak, baldintza hauek goitik behera onartzen direla adierazten du.

Andoain, 2021eko uztaila

Hezkuntza eta Kultura Batzordea



ERANSKINA

Ipuinen sarrera erabakitzeako aukerak

A. maila: 10 - 11 urtekoena Martin Ugaldere ipuinak

A aukera

“Sorginaren urrea”

Behin bizi omen zen mutil bat, eta izena omen zuen Xabier.

Xabier mutil alferra zen, eta ez zuen irakurtzen ikasi nahi. Maisuak eta amatxok eta aitatzok erakutsi nahi zioten, baina Xabiertzok ez zuen ikasi nahi.

Hala, arratsalde batean ikastolatik piper egin eta Lizarbolako zubian eserita omen zegoen eguzkia hartzen.

Eta amona zahar bat pasatu zen.

–Zer egiten duzu hemen? –esan zion Xabierri.

–Eguzkia hartzen –erantzun zion Xabier lotsagabeak.

Baina Xabierrek ez zekien amona zahar hura sorgina zela!

B aukera

“Egiaren saria”

Behin batean (baina aspaldi, mendiko txori eta abere eta piztia guztiak guk bezala hitz egiten zuten garaian) bizi omen ziren Imanol eta Iker.

Imanol oso ona zen; beti egia esaten zuen, eta gainera esaten zioten guztia egia zela uste izaten zuen.

Iker, berriz, beti gezurretan ari zen, eta esaten zioten guztia gezurra zela uste izaten zuen.

“Zu mokoloa zara! –esaten zion Ikerrek Imanoli–. Jendeak esaten dizun guztia egia dela uste duzu! Ja, ja, ja!”...

Eta Iker beti Imanoli burlaka ibiltzen zen.

C aukera

“Lagun, txakur beldur gabea”

Behin batean bizi omen zen txakur bat, eta izena omen zuen “Lagun”. Oso bizkorra zen; eta begi argiak zituen; eta badakizue zer gehiago?... berebiziko haginak!...

“Lagun”en haginak ikaragarriak ziren! Harrapatzen zuen guztia: arropa zela, mahai-hankak zirela, oiloak zirela, harrapatzen zuen guztia txiki-txiki egiten zuen.

“Lagun” baserri batean bizi zen. Eta baserri honetan bizi ziren, gainera, senar-emazteak eta bere hiru seme-alaba. Semeak bederatzita urte zituen, eta alaba zaharrenak, zortzi, eta beste neska txikiak, Miren Ainarak hamar hilabete bakarrik.

Mutil zaharrenak asko maite zuen “Lagun”, eta neska zaharrenak ere bai. Beti berarekin jostatzen ibiltzen ziren. Miren Ainara txikiak ere asko maite zuen txakurra, baina berak ez zekien oraindik txakurrarekin nola jostatu. Eta aitak? Bai, aitak ere maite zuen “Lagun”, eta askotan berarekin eramaten zuen paseatzera. Eta amak? Ez dakit ba!... Pixka bat maite zuen, baina oso haserre egoten zen gehienetan. Zergatik? Ba, “Lagun”ek etxean harrapatzen zion guztia puskatzen ziolako!



B. maila: 12 - 13 urtekoena - **1.997ko ipuin irabazlea:** Joseba Ormazabal Guerrero
“Hilketa Misteriotsua Moskun”

A aukera

“Plaza gorrian bostetan han praka beltzez eta alkandora urdinez jantzitako gizon bat aurkituko duzu”.

B aukera

“Ia lorik egin gabe pasa genuen gaua eta segituan iritsi ziren zortziak”.

C aukera

“Kontu handiz sartu eta pixkanaka-pixkanaka argia zegoen tokira joan nintzen”.

Hilketa Misteriotsua Moskun ipuinetik ateratako esaldiak

C. maila: 14 - 15 urtekoena - **1.997ko ipuin irabazlea:** Enara Otaegi Veslin
“Azken Garrasia”

“Hasieran Cheickek guregatik egindakoa eskertu besterik ez nuen egiten. Ezin nuen ulertu. Dagoeneko ulertzen dut baina badakit jende askok ez duela egiten”.

Azken Garrasia ipuinetik ateratako esaldiak.

D. maila: 16 - 17 urtekoena – **Martin Ugaldere ipuinak**

Tolosa aldetik bazetozela!

Billabonaraino heldu zirela!

Amasa bidetik sartu eta Nafarroa aldetik zetozen beste karlistekin batera Belabietatik behera, Goiburutik barrena, trenbidetik zehar, faszistak bazetozela...!

Herrian halako hotzikara bat sartzen hasi zen Nafarroa aldeko nonbaitetik. Joxe Mari musikariak kamioi batean igo eta bere tronpeta oihu ikaragarri harekin herria punta batetik besteraino zulatu zuen. Nire aita lar arramazkez aurpegia urratuta Belabietatik etorri berria, Nikolax kaxetakoa (herriko lehenengo heriotza) menditik gorputzil jaitsi berria, tronpeta soinu haiek azken juiziokoak ziruditen.

— Hernanira, azkar!... —gure aitaren oihua.

Gure etxeko bost gela eta sukaldea haize ikaragarri batek birrindu balitu bezala geratu ziren bost minututan.

Eta gu, etxe atarian ia esku hutsik.

—Utz ezazu dena, emakumea, bi edo hiru eguneko kontua izango da eta!...

Amak bere gauzatxoak eraman nahi; aita, berriz, beranduegi izango ote zen kezkarakin, biak haserretu ziren.

Tranbiako zentralaren aurrean bi bagoi jarri zituzten bide zabalean zeharka, eta barruan ehizeko eskopetekin dozena bat gizon zain. Goianeko, Zuñiganeko, Garagorrineko, bizilagun guztiak beren seme-alaba, txakur eta gainerakoekin, oinez, beheko plazatik zehar, kale berritik barrena, Hernani edo Lasarte bidean ihesi...

Gizerailtza - *Hiltzaileak* liburutik hartua da.